

labore- txandaketak

Zer da labore-txandaketa?

Txandaketa laboreak denboran zehar lursail edo alor berean txandaka landatzea edo ereitea da. Txandaketa aldi berean egin ohi da hainbat lursailetan eta labore motak urteetan zehar txandakatzen dira. Biodibertsitatea denboran zehar eragiteko modu bat da.



Onurak

- Ona da espazioa eta lurreko baliabideak hobeki aprobetxatzeko: ura, mantenu gaiak... Labore mota bakoitzak bere nutrizio eta ur premiak ditu.
- Lurzoruko geruza horizontal batzuen aprobetxamendua hobetzen du, bai eta haien emankortasuna ere. Labore mota bakoitzak sustrai-sistema ezberdina dauka.
- Izurriak eta gaitzak kontrolatzen laguntzen du. Haien ziklo biologikoa eten egiten da eta haien eragin-arriskua murriztu.
- Lagungarria da lurrraren emankortasuna eta osasuna mantentzeko.
- Nahi ez ditugun belarrak murrizten dira. Laboreen artean, izan ere, batzuk garbitzaileak dira eta, beste batzuk, berriz, infestanteak.

Zailtasunak

- Diseinatzeko, garrantzitsua da laboreen zikloak eta eremuko baratze-egutegia jakitea.
- Lurraren erabilera planifikatu behar da.
- Labore mota bakoitzak bere azalera okupatzen du, eta horrek txandaketa desdoitzen du. Lursail batzuk lugorri utziz edo ongarrri berdeak erantsiz konpondu daiteke.
- Hainbat urtetako laboreak txandaketatik kanpo gelditzen dira, hala nola orburua eta marrubia.

Kontuan hartu beharreko gomendioak

- Ez errepikatu familiak 3-4 urte igaro arte.
- Nutrizio-premia eta sustrai-sistema ezberdineko laboreak txandakatzea, betiere familia berekoak ez izatea kontuan hartuta.
- Laboreen zikloak eta uzta-denboraren iraupena ezagutu eta kontuan hartzea.

Labore-elkarketa

Laboreak beren nutrizio-premien arabera elkartzeko modu erraz bat (baina ez beti) bat dator landarearen aprobeixamenduarekin, landarearen zer zati kontsumitzen dugun. Familiak ez errepikatzea kontuan hartzen badugu, irizpideak hein handian beteko dira.

Behar handiak	Behar ertainak	Behar txikiak	Hobetzaileak
Fruitua tomatea, alberjina, kuiatxoa, ... Loreak/azak/ Patata	Hostoa letxuga, zerba, ziazerba, eskarola, porrua...	Sustriak azenarioa, arbia, erremolatxa, tipula, baratxuria	Lekadunak baba, ilarra, babarruna Ongarri berdeak

Txandaketa 4 urtera



labore-
txandaketak

CPAEN
NNPEK
EKOLOGIKOAK

